


B

BARREN

TOKIKOM

'Maño' euskalduna Argentinan

Chusemi Vicente



BARREN AZOKAN

Urriak 31, ostirala

17:00etatik aurrera

TOR magoa, 'Hator magiara' ikuskizuna
Ondoren, Txokolatada



elgoibar
BIZI BERRIA



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- **BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisi&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, es- triak)

Osasunerako ariketa agin-
dua
(Diabetes, osteoporosis,
hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-
ka (kalak, ergonomia bizikle-
tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



Janire Elordi

Ai, Maita, zelako ederki egoginen aurreko ostiralean txatxaran afari pasara eginaz, ezta? Benetan gozatuta bueltatu nintzen etxera. Eta horren haritik, sukaldeko mahai gainean jarri

dut ordenagailua eta gogoetan hasi naiz, behin lankide batek esan zidanaren inguruan.

Berarentzat euskal kulturaren ezaugarri garbiena jateko daukagun zaletasuna da. Berak dio edozein pentsamolde, komunikatzeko-modu edota ohituren gaintik dagoela hori; Euskal Herritar denok amankomunean dugun gauza bakarra dela.

Izan ere, ez dugu aitzakia askorik behar afari bat antolatzeko, edozein urteurren dela eta bazkari ederra egiteko, mendi bueltarik txikiaren ondoren hamaiketakoa jateko edo lanaldia amaitu ostean lagunarteko meriendatxoaz gozatzeko.

“Lagun batek dio gure kulturaren ezaugarri garbiena jateko daukagun zaletasuna dela”

Lankide hark ziostan legez, hain da ohitura errotua, edozein herrihiritara joanda ere, jatun onak luze joan gabe topatuko duela lagunarteko berri batean sartu eta jatordu bat egiteko aukera; beti topatuko dituela lagunak, azken finean. Eta zeinen ederra den hori! Hori bai, baldintza bat bete behar da: jarritakoa jateko prest egotea!

Hala ere, lehen, lapikokoa familian janda bueltatzen baginen arratsaldeko jardueretara, orain, ordu luzez etxetik kanpo dihardugun honetan, sarri gertatzen da lanera tuperrarekin joatea beste aukerarik ez izatea. Baliteke gure jateko ohitura onak ere aldatzen egotea. Baina dena ez da galtzeko! Izan ere, orain neskak ere elkarte gastronomiko-etako sukaldetan saltsan ibiltzeko daukagun aukera paregabea da!

Gaur, Argiñanoren estilora prestatutako barrengorriak (txanpiñoiak) egin nahi ditut etxean; probatu al duzu zuk errezeta?



Maitane Mendikute

Ba ez, Jani! Ez dut oraindik Argiñanoren errezeta hori probatu, baina irrikitan nago sukaldean ditudan onddoak arraultza pare batekin nahastu eta afari mokadua egiteko.

Moda-modan dagoen gaia eredu duzu gaurkoan, Jani! Badirudi, bizimodu osasuntsuago bat egitearen alde, denok hasi garela kirol pixka bat egin eta dieta orekatu bat egin nahian. Eta ez dakit horregatik den, edo zer, baina telebistan ere sukaldaritzaren inguruko programek *boom* izugarria izan dute azken urteotan. Dieta desberdinek ere jarraitzaile ugari dute, eta elikagai ekologikoak ere modan daudela esango nuke.

“Dena den, badirudi hemen ere tamalez ohiturak aldatzen ari direla”

Nik neuk ere gogoko dut sukaldaritza. Are gogokoago sukaldean egindakoa dastatzea. Eta diozu, euskaldun denok dugula jateko zaletasuna? Izan daiteke. Edota orain arte horrela izan ohi da behintzat.

Dena den, badirudi zuk esan bezala, hemen ere, tamalez, ohiturak aldatzen ari direla. Lana, bizimodu frenetikoa, eta ezertarako astirik gabe gabiltzan garai hauetan ez da erraza egunero etxeko porru-patata eta okela gisatua jatea. Gu ere, ingeles, aleman eta amerikarren antzera hasi gara lanera jatekoa eramaten. Sandwich-a eta boltsako patatak beharrezko tupper-ean eramaten ditugu dilistak (oraindik), baina azken finean, hasi gara geu ere bazkalorduari bere denbora eta garrantzia kentzen. Nik neuk behintzat, horixe egiten dut orain, eta dexente igartzten dut egunero etxean edo etxean bezala bazkaltzearen falta (gorantziaz Mila, testu hau irakurtzen baduzul).

Zer izango da hurrengo, Jani? Txinotik ekarritako noodleek lekukoa kenduko ote al die bakailau kokotxei euskal elkarteetan?

Hori iritsi orduko egin beharko dugu beste bazkaritxo bat edo beste! Inbitatuta zaudete gurera, Jani! Nahi duzuenan.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, **03:00etan, ordubetez atzeratu beharko da ordularia.**



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Aina Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Aina Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskubidetasun Topagunea

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen **IRITZIA** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Pala txapelketa mixtoa

Bost astez, 22 bikotek, palak eskutan, kirola eta berdintasunari maila onean eutsi diogu. Partida politak ikusi dira herriko plazan, eta nola ez, giroa, aparta! Parte-hartzea handia izan da, eta gerturatutakoak ere asko izan dira. Antolakuntza ez da lan erraza izan: bilerak, kamisetak, eskaerak, azken orduko arazo eta aldatuak..., baina paletan jokatzeko dugun zaletasunarekin pala txapelketa aurrera ateratzea lortu dugu, eta ez edonola! Horregatik txapelketan parte hartu eta laguntzen ibili zareten guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu: Xabi, Agurtzane, Lagunak Pilota Eskola, Iturri Taberna, Kirol Patronatuko Ramon, Berdintasun Saileko Elena eta Hirigintzako Ricardori. Kirola, berdintasuna eta plazako eta partehartzaileen arteko giro ona izan dira txapelketako protagonista eta txapelkunak. Eskerrik asko, eta hurrengo urtean ere plazako frontoian ikusiko gara!

Pala txapelketa mistoko antolatzaileak

Erabakitze eskubidearen alde, azaroaren 8an Zurriolara!

Oraindik buruan dugu milaka lagun zoriontsuk ekainaren 8an sortu genuen argazki handi eta koloretsu hura. Bada, orain, beste ekitaldi ikusgarri batekin gatzokizue Gure Esku Dago mugimendutik.

Azaroaren 8an, mosaiko handi bat osatu dugu Donostian, Zurriolan, eta parte hartzera deitu nahi zaituztegu. Kataluniako galdeketa bezperatan eta Eskoziako erreferenduma pasata, gu ere erabakitze eskubidea noizbait egikaritzeko lanean ari garela adieraziko dugu beste behin ere.

5.000 lagun batu nahi dira eta Elgoibartik eta Mendarotik ere joango gara, geure alea jartzera. Mosaikoan parte hartzeko txartela erosi behar da, giza katerako egin genuen bezala, eta ezinbestekoa izango da egunean bertan eskura izatea, mosaikoa osatzeko beharrezkoa izango den materiala eskuratzeko: kapa eta aterkia. Txartel horiek erosteko bi aukera dauka Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren, Gure Esku Dago batzordeko Kalegoen plazan izango gaituzue azaroaren 8a arteko hiru ostiraletan, 17:30etik aurrera, eta Mendaron, gauza bera egingo dugu gaur, 18:00etatik aurrera. Nolanahi ere, Internetez erosteko aukera ere bada-

go, www.gureeskudago.net helbidean sartuta. Zalantzarik izanez gero, hona hemen gure posta elektronikoa:

Elgoibarkoentzat: elgoibarged@gmail.com,
eta Mendarokoentzat: mendaroged@gmail.com.

Elgoibarko eta Mendaroko Gure Esku Dago batzordeak

#Gaztiakgerabarren

Azken bost urte hauetan Harro2 hausnarketatik #Gaztiakgerabarren hastag-era iritsi gara. Ez al da errazagoa gazteekin elkartzeko? Ikerketaren kostuarekin, 4.000 euroekin, eta antzeko beste proiektu "parte hartzaileen" kostuarekin zenbat ekintza? Baina ez, hau ez da gure eredu, elkarlanean eta gazteengan sinesten dugu. Ez gara etorkizuna, oraina baizik.

Ezin da Gaztetxearen irakurketa interesatu bat egin: Gazteak elkartzeko gunea da. Langabezia, harremanak eta ikasketak mintzagai diren gunea, arduratuta dagoen kolektiboa. Urtean zehar 30 lagun gabilta tiraka; jaietan, 400, ikerketako laginaren 133%. Ikerketako emaitzetan %50 baino gehiagok dio ez dakie la zer nahi edo behar duen. Gazteok ez dakigu zer nahi dugun. Asanbladako kideen %100 herriko elkarte ezberdinetako kide dira; lokaletan berriz, %17. Ez al da irakurketa bat herri honetako mugimendu sozial ezberdinen arteko gazte topagunea dela asanblada?

Kotter-ek *Leading change* liburuan aldaketaren kudeaketa zortzi pausotan banatzen zuen: Gu lehenengo hiru pausoak ematen gaude. 1- Urgentzia sortu. 2- Taldea bildu. 3- Helburu komun bat eratu. Orain, aro berriaren atarian (helburuak, komunikazioa eta akzioa), Udalaren jarrera eta elkarlana gakoa izango dira, gure alboan pausoak eman nahi baditu. Guk lortu dugu, sortu dugu ilusioa eta prest gaude. XXI. mendeko iraultza gazteon irribarra da, gazteon zorientasuna. Ez dira ahalegin makalak izan herriko gazte ezberdinekin egindakoak herri honetan aisialdi aukera ezberdin bat sortzeko, eta gazteen artean harremantzeko modu ezberdin bat asmatzeko. Eskerrik asko, bihotzez, baina bidea hasi besteherik ez da egin. Ez ahaztu ez garela etorkizuna, oraina garela.

Gazte Asanblada

Bost mila lagun batu nahi ditu Gure Esku Dagok, Donostian mosaikoa osatzeko

Azaroaren 8rako egin dute deialdia

Gure Esku Dago dinamika mosaiko erraldoia egin nahi du azaroaren 8an Donostiako Zurriola hondartzan, eta Elgoibarko eta Mendaroko Gure Esku Dago taldeak ere mosaiko erraldoia antolatzen lanetan ari dira. Bost mila pertsona batzeko erronkari heldu dio Gure Esku Dagok. Kataluniako galdeketa egunaren bezperatan, Eskoziarrak zoriondu eta Katalanak animatzearekin batera, euskaldunek ere erabaki nahi dutela aldarrikatzeko egingo du mosaikoa herri dinamika honen.



Mosaikoa parte hartzeko izena eman beharra dago aurrez. 5 € ordaindu beharko ditu partehartzaile bakoitzak, eta horren trukean mosaikoa egiteko erabiliko diren aterkia eta pontxoa jasoko ditu norberak opari. Gaurtik hasita, azaroaren 8ra bitarteko barixakuetan jarriko du informazio mahaia Kalegoen plazan Elgoibarko lantaldeak, eta nahi duenak han erosi ahal izango ditu txartelak. 17:30ean irtingo dira. Mendaroko lantaldeak, aldiz, Herriko Enparantzan jarriko du mahaia gaur, 18:00etatik aurrera. Nahi duenak Internetez ere badauka izena emateko aukera, www.gure-eskudago.net webgunean.

Urriko azken ostiraleko elkarretaratzea Juan Mari Mendizabali eskainiko diote

Preso eta iheslarien aldeko mugimenduak Juan Mari Mendizabal presoari eskainiko dio urriko azken ostiraleko elkarretaratzea. Juan Mari Mendizabal, Burgosen dago preso gaur egun, eta zigorraren 3/4ak beteak ditu, beraz, legearen arabera aske egon beharko luke. Martxotik ekainerako epean, Euskal Preso Politikoen kolektiboko kideek Euskal Herriratzeko eskaerak formalki egin zituzten. Espainiako presondegietan dauden Arabako Zaballa espetxera eramateko eskatu zuten eta Frantziakoetan dituztenak etxetik gertuen dauden espetxeetara eramateko. Mendizabalek berak ere egin zuen eskaera, baina denak ez ezatatu dituzte. Elkarretaratzea deitu dutenek kolektiboa emaniko pausoak gizarteratu nahi dituzte, eta era berean, elgoibartarrak Juan Mari Mendizabalen alde mugiaraztea eskatu dute. 20:00etan hasita, ordu erdiko elkarretaratzea egingo dute urriaren 31n, Kalegoen plazan.



Aitzol Etxaburu absolbitu egin dute froga faltagatik

2008an ustez Elgoibarko PSE-EEren egoitzaren aurka egindako atentatu batengatik epaitu dute Aitzol Etxaburu preso ondarrutarra Espainiako Auzitegi Nazionalan; eta, absolbitu egin dute, froga faltagatik. Ibon Iparragirrenen testigantza zen Espainiako Auzitegi Nazionalak Etxabururen aurka zuen ustezko froga bakarra. Iparragirrek torturapean egindako testigantzak zirela azpimarratu zuen epaiketan. Era berean, Etxaburuk Elgoibarko erasoan parte hartu izana ukatu egin zuen, eta Iparragirre ikastolatik ezagutzen zuela esan zuen. Atentatuan parte hartu izana onartu baldin bazuen, "ertzainen aldetik jaso zituen presio eta torturengatik" izan zela adierazi zien epaileei.



Errigora saskia jarriko dute salgai Elgoibarren

Errigoraren udazkeneko kanpaina Elgoibarrera helduko da laster, eta kanpaina horren barruan, Nafarroako hegoaldeko produktuak eskuratzeko aukera egongo da. Ekimenak bi helburu ditu: batetik, Nafarroan euskara ofiziala ez den guneetako euskalgintzako proiektuei laguntzea, eta, bestetik, hango nekazariei laguntzea, Euskal Herrian ekoiztutakoa Euskal Herrian konsumitzearen bitartez. Azaroaren 12ra arteko epea egongo da eskaerak egiteko. Eskae-rak elgoibar.errigora@gmail.com helbidean egin daitezke, eta Ikastolan eta AEKn ere jarriko dituzte otarrak salgai.

Chusemi Vicente, 'gautxo' artean



Ludotekako 'mañoa' da Chusemi Vicente. Zaragozatik iritsi zen Euskal Herria orain dela zortzi urte, eta Azpeitin bizi da ordutik. Euskaraz bizi da, eta euskaraz egiten du lan, Elgoibarko Izarran. Ludoteka eta Gaztelekua ireki zirenetik, bera da Ludotekako koordinatzailea, eta ume zein gurasoekin euskaraz komunikatzen da. Hezkuntzan dihardu, eta bere lanbideari lotuta, Argentinara egin du bidaia. Patagoniako zentro batean jardun du behar berezietako hezitzaile lanetan, eta horrez gain, turismoa egiteko aprobeztatu du bidaia. 'Gautxo' artean eman ditu lau hilabete.

Ainhoa Andonegi

Euskaraz hitz egiten entzun duenak azpeitiarra dela pentsatuko du, baina gaztelaniaz berbetan entzunez gero, berehala ohartuko da Chusemi Vicenteren hizketa tonua ez dela hemen goa: Zaragozakoa da, 'mañoa', baina hizkuntza gutxituekiko nolabaiteko sentsibilitatea izan du betidanik, eta aspaldi piztu zitzaion euskararekiko interesa. Interes horri gainera, beste arrazoi bat gehitu behar zaio: 2000. urteko Zaragozako Las Cinco Villas herriko gaztelu batean antolatu zituzten udalekuetan zegoen lanean, eta gaur egun bere bikotekidea den neska ezagutu zuen han: Leire Juaristi azpeitiarra. Gaztelerez ezagutu zuten elkar, baina ordurako Chusemik eginak zituen Euskal Herrira bidaia pare bat, eta Negu Gorriak edo Kortatu moduko euskal mu-

sika taldeak ere entzuten zituen. Baina hori ez zen nahikoa Azpeitiko bizilagunekin komunikatzeko, eta bere kabuz hasi zen euskara ikasten, Azpeitira joaten zenean lagunekin hitz egin ahal izateko. Euskararako benetako pausoa baina, 2006an eman zuen. Azpeitira etorri zen bizitzera, eta orduan argi ikusi zuen euskara ikasi behar zuela. Hizkuntza gutxituekiko zuen sentsibilizazioaz gain, bazekien hezkuntzan lan egiteko euskara ikasi eta menperatu egin behar zuela, baina gainera, euskara ikasi nahi zuen. Langabezian zegoen, eta langabeziako bi urteak euskara ikasteko baliatzea erabaki zuen. Azpeitiko euskaltegira joaten zen egunero bi orduz, eta etxean bere kabuz beste hiru ordu eskaintzen zizkion euskarari egunero. Eta ahalegin hark eman zuen bere fruitua: Egun

batean konturatu zen euskaraz pentsatzen zuela eta ez zegoela uneoro gaztelaniatik itzulpena egiten. Hizkuntzaren muina barneratu zuen, eta primeran moldatzen da gaur egun euskaraz, bai ahoz eta baita idatziz ere. Hitzaren etimologiarekiko interesak hizkuntza barneratzen lagundu ziola adierazi du: "Euskara hizkuntza intuitiboa da", dio. Hala ere, uste du hizkuntza bat ikasten ez dela inoiz amaitzen.

Behin euskara ikasi zuenean, lanean hasteko unea iritsi zitzaion. Azpeitiko lagun baten bitartez jakin zuen Elgoibarko Gaztelekurako eta Ludotekarako jende bila ari zirela, eta bere burua aurkeztu zuen. 2007ko Eguerberrietako oporraldian hasi zen lanean errefortzu modura, eta gero asteburuetako ordezkapenak egiten hasi zen. Gaur egun, Lu-

Chusemi, Ushuaian, munduaren amaierako kartelarekin.

dotekako koordinatzailea da.

Azken lau hilabeteetan, baina, ez da Lu-dotekan egon. Maiatzetik irailera bitartean eszedentzian egon da, eta Argentinara egin du bidaia. Ez da, baina, turismo bidaia izan soilik: Chusemik eta Leirek aspalditik zeukaten gogoia atzerriko herrialderen batean hezkuntzarekin lotutako proiektu batean parte hartzeko, eta hainbat herrialdetara joateko aukerak aztertu ostean, Argentinarako bidea hartu zuten. Guatemala, Mendebaldeko Sahara, Venezuela edota Vietnam moduko herrialdeak izan zituzten jomugan, baina Leireren lankideren baten bidez, Argentinako zentro bateko kontaktua lortu zuten, eta proiektu hark izan zuen aurrerabidea.

Patagoniako Lago Puelo herrira iritsi ziren, Chubut probintziara. Patagoniak hiru probintzia ditu, eta Chubut iparraldean dago. Han zuten familia zain, eta lan egingo zuten Mandala Zentro terapeutikoa herritik kilometro batzutura zegoen, El Bolson herrian. Hasierean ez zekiten zein lan egin behar zuten ere, baina euren profila ikusi zutenean behar bereziak zituzten gazteei laguntzen jarri zituzten. Chusemi autismodun umeekin egoten zen barixakuetan. 6 urteko umeak ziren, eta hautismo maila desberdina zuten guztiak. Talde-terapia egiten zuten, modu ludikoan. Horrez gain, mugikortasun arazoak zituen beste

Ikurriña jarri zuten, Munduko beste hainbat banderaren ondoan.



“Kontrastez beteriko herrialdea da Argentina”

gazte batekin ere jardun zuen lanean, psikomotrizitatea lantzen. Sei astez egon ziren zentro hartan boluntario lanetan, eta esperientzia “oso aberasgarria” izan zen.

Patagoniako sei asteko egonaldia ondoan, turismo bidaiari ekin zioten. Udazkena bukatzen ari zen Argentinan, eta negua iristear zegoen. Negu gogorra iritsi aurretik, hegoalderako bidea hartu zuten. Calafaten Perito Moreno glaziar ezaguna bisitatu zuten, El Chalten inguruan dauden Fitz Roy eta Cerro Torre mendiak ikusi zituzten, eta handik Txilera gurutzatu zuten, Torres del Paine parke naturala ezagutzera. Hurrengo helmuga Ushuaia izan zuten. Beagle kanalean barrena ibili ziren itsasontzian, eta munduaren amaierako faroa bisitatu zuten. Faro aski ezaguna euskaldunontzat, bereziki *El Conquistador del fin del mundo* telebista realitya ikusten dutenentzat. “Hango gidariak ere harritu egiten dira euskaldun guztiak faro horri buruz galdetzen dietelako”. Baina Chusemik azaldu du faro ezagun hori ez dela berez munduaren amaierako faroa: “Horrela deitzen zaio Julio Vernerren *El faro del fin del mundo* liburuan faro horren argazkia azaldu zelako,

baina benetako munduaren amaierako faroa Los Estados uhartean da-

go”. Ushuaiako museoan benetako faroaren erreplika bisitatu daiteke, “museo oso interesgarria”. Bere garaian kartzela bat izan zen, eta gaur egun museoa da.

Hegoaldea utzi eta Valdes Peninsulara joan ziren Puerto Madryn eta Puerto Piramides inguruetara. Baleak dira ingurune horretan turistaren atentzioa pizten dutenak, eta Chusemik eta Leirek ere hartu zuten baleak ikusteko itsasontzia. “Ikaragarria izan zen, sekulako espektakulua”. Patagoniatik pasatu ziren berriz, Lago Puelo herrian utzi zituzten gauzen bila, eta iparralderantz abiatu ziren. Txilera joan ziren berriz, Valparaisora, eta handik Atakamako basamortura. “Polita eta berezia” da Atakama. Boliviara ere pasatu ziren, eta 4x4 auto batean egin zuten mendian zehar irteera bat. “Sekula ez besteko hotza pasatu genuen”, esan du Chusemik, baina “talde polita” tokatu zitzaizen, lagun onak egin zituzten eta gustura ibili ziren. Argentinako ipar-mendebaldera joan ziren gero, Bolivia eta Txilerekin muga egiten duen lurraldera. Salta, Jujui, Purmamarca... “Ingurune berezia da; hor ikusten da benetako Argentina”. Pachamama festa ezagutu zuten han: Abuztuaren 1ean ospatzen dute festa hori, eta lurrrari baimena eskatzen diote barazkiak landatzeko. Argentina oso handia da. Iparraldetik hegoaldera 5.000 kilometro pasa ditu, eta kontraste handiko herrialdea da. “Hemendik daukagun Argentinaren irudia Buenos Aires-

koa da, baina Argentina hori baino askoz gehiago da. Hizkuntza bera ere asko aldatzen da leku batetik bestera”.

Argentinako iparraldea gurutzatu zuten ondoren, 25 ordu egin zituzten *colectivoan*, hango autobusean, eta Iguazu aldera iritsi ziren. Uholdeak izan ziren beraiek iritsi aurretik, eta ur jausietako zona batzuk ezin izan zituzten bisitatu, hondatuta zeudelako. Hala ere, “ikusgarria” iruditu zitzaion. Eta Argentinara bidaiatzen duen orori galdetzen diote zer gustatu zaion gehiago, Perito Moreno glaziarra ala Iguazuko ur jausiak, eta askok ezin izaten dute aukeratu. Chusemik egin du bere aukera: Perito Moreno glaziarra. “Bien aurrean jarri, parez pare begiratu eta Perito Moreno glaziarra transmititzen dizuna zirraragarria da”. Iguazu, aldiz, espero zuen, ez zuen horrenbeste harritu. “Ur jausi handiak bai, ur pila bat batera erortzen zen, baina 30 kilometroko zabalera duen izotz blokea eta zati bat erortzen den bakoitzean ateratzen duen soinua izugarria da”. Argentinan bisitatu beharreko bi toki dira Perito Moreno eta Iguazu, baina Chusemiren gomendioa Salta eta Jujui inguruak bisitatzeko da. Uruguairako muga gurutzatu zuten ondoren, eta astebete egin zuten han. Buenos Airesen bukatu zuten bidaiak: “Zortzi abizen euskaldun zituen emakume bat izan zen gure gida turistikoa”, esan du Chusemik barrez. Euskal Etxea ere bisitatu zuten, eta euskaldunak zirela esatean “primeran” hartu zituzten: “Hemen baino euskaldunagoak dira han”.

“Interesgarria eta aberatsa” izan da Chusemik eta Leirek egindako bidaiak. “Liluratuta” itzuli dira, baina bidaiak eman dien onena hango bizilagunak eta bizimodua ezagutzeko izan dela adierazi du. Bi *gautxo* gehiago izan dira Chusemi eta Leire Patagoniako egonaldian, eta hango bizilagunek egiten zituzten gauza berberak egin dituzte: Mapuche perkusio-tailerra egin zuten, ostegunetan zine alternatibo jardunaldietara joaten ziren, ostiral eta zapatuetan folklore jaietan hartzen zuten parte... Argentinan ohikoa da matea edatea. Hango edari tipikoa da, eta askok soinean eramaten dute beti matea, edozein unetan edateko. Edozein tokitan ateratzen dute termoa, matea edateko termo berezia, eta gainera ondokoei ere ematen diete. Sozializatzeko modu bat da matea edatea. “Mateak aukeratu egiten zaitu, edo ez, baina zuk ezin duzu matea aukeratu”, esan du Chusemik, eta bera, barruraino harrapatu du mateak. Argentinatik itzuli denetik, egunero hartzen du Chusemik matea, baina jendearekin konpartitze hori falta zaio: “Ludotekan edaten dut, baina bakarrik, eta matearen oinarrian sozializatzea dago”.

Chusemik eta Leirek familia bat dute orain Argentinan, gurasoak eta anai-arrebak eta “haiek ezagutzeko izan da onena”. Javier Araujo eta Patricia Castellanos dira gurasoak, eta Emiliano, Martin, Ana eta Agustina anai-arrebak. Harreman “berezia” lortu dute haiekin, eta 2016a baino lehen haiek Euskal Herrira etortzea hitzartu dute, eta nola edo hala, hamar urte pasatu aurretik, Chusemi eta Leire Argentinara itzultzea. “Plata pixkat aurreztu behar dugu horretarako, baina seguru itzuliko garela”, esan du.

Goiko argazkian Chusemi El Bolsón herrian. Bigarren erretratua, Iguazuko ur jausietan ateratakoa da, eta hirugarrena Humahuacan. Behekoa, Atakamako basamortuan ateratakoa da.





OIER ARAOLAZA
Antropologoa

Halloween ospatuko du Gaztelekuak urriaren 31n

Bestelakoa uste dugun arren, Halloween euskal tradizioko ohitura bat da, eta Elgoibarko gazteei horren berri emateko ekitaldi berezia antolatu du Gaztelekuak urriaren 31rako. Animen gauaren tradizioa nondik datorren azaltzeko Oier Araolazarengana jo du BARRENEK.

“Kalabaza hustea eta maindireekin jendea beldurtzea euskal tradiziokoak dira”

Neguko Festen barruan kokatzen duzu Halloween jaia. Zer dira, Neguko Festak?

Animen gauarekin hasi eta hausterre asteazkena bitartean egiten diren ospakizun gehienak Neguko Festatzat har ditzakegu: santuei lotuta ageri zaizkigun San Martin, San Andres, San Tomas edo San Anton moduko jaiak, Gabonak, Santa Ageda, Kandelaria eta inauteriak, besteak beste. Nekazaritzaren zikloekin, urtaro eta solstizioarekin lotuta, Europa mendebalde osoan konpartitzen ditugu Neguko Festen hainbat ezaugarri: eske-errondak, nekazal produktuen azokak, heriotza (gizaki, animalia zein naturarena) eta berpiztearen inguruko erritualak, mozerro eta janzkera bereziak, e.a.

Halloween ere hor sartzen da. Noiz arte eta nola ospatzen zen?

Atzorarte ospatu da Euskal Herrian. Noski, ez zen izen horrekin ospatzen. Animen gaua esaten zitzaion gehienetan, baina hain zuzen ere horixe da Halloween-ek esan nahi duena: “Anima guztien gaua”. Urriak 31, azaroak 1-2 inguruan ospatu izan da animen gaua, Domu Santu egunari lotuta. Gaztetxoek ortuetan kalabazak eta arbiak harrapatu, hustu, zuloak egin,

eta kandelak jartzen zizkieten bide bazterretan zintzilikatu eta jendea beldurtzeko. Izarak eta trapuekin mozerrotu eta ilunpetan herritarrak beldurtzen ibiltzen ziren gazteak. Zenbait tokitan eske-errondak ere egiten zituzten, gartzainak, intxaurrak eta horrelakoak eskatuz.

Zergatik uste dugu amerikaren festa dela?

XX. mendearen bigarren zatian animen gauaren festa indarra galtzen joan da Euskal Herrian, eta 1980tik aurrera, oso gutxi ospatu da. Ameriketara, irlandar etorkinek ospatzen jarraitu zuten eta indar handia hartu zuen. Zineak mundu osora zabaldu du festa, eta merkataritza industriak negozioa ikusi du hor, eta beraz, azken urteotan urria Halloween aroa, mundu mailan egiten den salmenta kanpaina handi bihurtu dute saltoki handi eta txikiek, telebista eta komunikabideen laguntzarekin. Gazteek ez dute ezagutu horrelako ospakizunik Euskal Herrian, eta uste dute festa erabat amerikarra dela. Eta berez, ospatzeko modua, adibidez “truco o trato” (“trick or treat”-aren itzulpen txarra) eske formula amerikarra da, plastikozko kalabazak, mozerro eta maskara kutreak erostea bezala. Kalabazak hustea eta maindireekin jendea beldur-

tzea ostera euskal tradiziozkoak dira, baina hori gaur egun ez da apenas egiten.

Aurten Elgoibarko Gaztelekuak ere egingo du saiakera bat Halloween festa berreskuratzeke. Nola ikusten duzu?

Merkataritza industriak erabakitzen du nolakoa izan behar den Halloween eta zaila izango da hori nabardurik sartzea. Gaur egun ez dago alde handirik Olenzero eta Papa Noelen artean, gauza bera dira, izenak eta kantu gutxi batzuk bereizten dituzte. Arrakasta handia litzateke Animen Gabarekin horrelako nabardura txiki bat eragitea Halloweeni, oso zaila iruditzen baitzait horrelakorik lortzea. Baina saiatu beharra dago, Halloween amerikarraren erauntsia itogarria baita, eta erresistentzia kultural minimo bat behar dugu gure nortasunari eutsi nahi badiogu. Alde horretatik txalotzeko iruditzen zait Gaztelektutik gazteei festaren jatorria argitu eta festa ospatzeko aukera interesgarriago bat proposatzeko ahalegina. Lan zaila dute benetan, erraldoi ahalguztidun baten eta gizartearen axolagabatasunaren aurka ari dira borrokan, baina arrastada txiki bat egitea lortzen badute lorpen handia izango da.

Halloween Gaztelekuan

Elgoibarko gaztelekuak euskal ohitura zahar bat berreskuratu nahi du. Badira urte batzuk, Halloween deritzon gaua ospatzeko ohitura zabaltzen ari dela gurean eta horretarako, telebistak zabalduetako erredua, eta batez ere, Estatu Batuetakoa hartzen ari gara: kalabazak hustu eta kandelak barruan sartu, mozerrotu, goxokiak eskatu etxez etxe... Baina nondik dator ohitura hau? Zer dela eta ospatzen da egun hori eta modu honetan? Hori guztia azaltzeko egitaraua prestatu dute urriaren 31rako.

EGITARAUA

- 17:00 Festaren jatorria landu
- 18:00 Kalabazak hustu eta beldurgarri apaindu.
- 19:30 Kalabazak herriko bideetan jarri, argizatuta

E lektrolipolisia



Plakak elkarrengandik ahalik eta gertuen jarri behar dira, zentimetro bateko tartarekin, gutxi gorabehera, baina elkarren artean ikutu gabe. Kanpo magnetiko bat sortzen dute, eta plakak zenbat eta gertuago egon, handiagoa izango da kanpo magnetiko hori, eta tratamendua eraginkorragoa izango da.

Korrante elektrikoak zuntzen gainean eragiten du, egonkortutako likidoak mugituz eta giltzurrun eta puxikaren lanaren bidez kanporatzen dira.



Zelulak aktibatzeko tratamendua da Elektrolipolisia. Orratz fin batzuen bidez egiten da. Azalaren azpian sartzen dira orratzak, elektrodo txiki batzuekin konektatuta, eta korrante horri esker, zelulak aktibatzen dira. Orratzei beldur dienak plaka bidezko alektrolipolisia ere aukeratu dezake. Orratzen ordez, plakak erabiltzen dira, eta emaitza oso antzerakoak ematen ditu, baina inongo minik gabe, eta metodo seguru batekin.

Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO



Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienezaren gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako



www.peluqueriajoseantonio.com

Estetika gehigarria



Elektrolipolisia egiten den zonaldeetako bolumena izugarri txikitzen da, eta hori da elektrolipolisiak eskaintzen duen emaitzarik ikusgarriena. Neurgailu batekin lehenengo saiotik nabaritzen dira aldaketak, baina batzutan saio gehiago ere behar izaten dira.

Saio bakoitza eskuz eginiko drenaje linfatiko sesio batekin osatzen da, eta horrek lagunduko digu azaletik askatutako koipea kanporatzen. Ohikoak dira endermologia edo presoterapia bezalako saioak ere, eta gimnasia pasiboak ere laguntzen du katabolito koipetsuak kanporatzen.

Saio gutxi batzuekin bolumen lokala izugarri txiki-

tzen da, eta "laranja azala" gutxitzen ere laguntzen du. Astean behineko maiztasunarekin, sei edo hamar saio egitea gomendatzen dute adituek, eta gero, urtean bi aldiz gomendagarria da mantenu sesioak egitea.



AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkl. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

HIDRODEPURAZIOA
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa



Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

Azaroan, asteartero, etorri eta %20eko deskontua izango duzu ileapaindegian!

FOTODEPILAZIOA

→ Ezpain gainekoa.....	15 €/saioko
→ Patillak.....	15 €/saioko
→ Besoak.....	49 €/saioko
→ Besape + Iztaiak.....	59 €/saioko
→ Zango erdiak.....	59 €/saioko

2014ko urria, azaro eta abendurako eskaintza

ileapaindegia estetika



NOA
943 74 74 21
San Basolorri, 33 baxo - ELGOIBAR



BONUA = 420€

- LPG 10 saio + 2 presoterapia-saio (doan).
- Emaitza bermatuak, gainera demostrazio-saioa doan!

Gazteen aisialdi ohiturak aztergai

Elgoibarko “ia gazte guztiek” ezagutzen dute Gaztetxea, baina hamarretik bat bakarrik joaten da sarri, eta beste hiru, tarteka

16 eta 30 urteko 300 gazte galdekatu ditu Gizaker ikerketa-etxeak, Udalaren enkarguz

Sasoia batetik hona Gaztetxea gutxiago erabiltzen dela-eta, herriko gazteen aisialdi-ohituren gaineko ikerketa egiteko eskatu zion Elgoibarko Udalak Gizaker ikerketa-etxeari, eta astelehenetan jakinarazi zituzten emaitzak. Gizakerekin 16 eta 30 urte arteko 300 lagun galdekatu ditu telefonoz [Adin tarte horretan, 1.400 lagun daude errolatuta Elgoibarran], eta besteak beste, Gaztetxearen eta lokalen gainean galdeatu diete. Ondorio asko ateratu dituzte ikerketatik, baina guztien artean bat nabarmendu du Alfredo Etxeberria alkateak: Elgoibarko ia gazte guztiek ezagutzen dutela Gaztetxea, baina hamarretik bat bakarrik joaten dela sarri eta beste hiru, noizbehinka. Orain, ikerketako emaitza horiek gazteen beharretara oinarritutako politikak diseinatzeko baliatuko dituztela zehaztu du Etxeberriak, besteak beste Gaztetxeari aurrerantzean emango zaion erabilpena zehazteko, erabilera hori arautzea ezinbestekoa ikusten baitu Udalak.



Etxeberriak dio gaur egungo Gaztetxeak ez daukala zerikusirik sorrerakoarekin: “Errebidinkazio politiko batekin lotuta hasi ziren, baina gaur egungo egoera asko aldatu da; aktibitatea desagertu egin da Gaztetxean”. Hala ere, eta ikerketako

emaitzak aipatuz, Etxeberriak esan du Gaztetxea mantentzearen alde egin dutela hainbat gaztek, uste dutelako aterpe ona izan daitekeela gauzak antolatzeko, batez ere, musikarekin lotura duten gauzak.

Udalaren kontra egin du Gazte Asanbladak, gazteen beharrez “gazteekin batu gabe” jardun duela egotzita

Elgoibarko Gazte Asanbladak prentsa ohar baten bidez erantzun dio Udalari, Gizaker ikerketa-etxeak egindako azterketaren emaitzak jakin eta hiru egunera. Udalaren enkarguz ikerketa-etxe horrek egindako azterketak 4.000 euroko kostua izan duela esan dute gazteek, eta ikerketa hori egin beharrean gazteekin eurekin elkartzeko aukera bazuela esan diote Udalari. Era horretan, ikerketan gastatu duen dirua gazteek benetan eskatzen dituzten jarduerak antolatzeko erabili ahalko lukeela azaldu diote.

Gaztetxearen harira, Gazte Asanbladak bat egin du Udalak egindako

irakurketarekin, Gaztetxea gazteak elkartzeko gunea dela dioen puntuan, baina hainbat berezitasun aitortzen dizkiote gazte hauek Gaztetxeari. “Gune mistoa da, eta arduratuta dagoen kolektiboa gurea”, jaso dute idatzian. Idatziaren sinatzaileen arabera, urtean zehar 30 bat lagun batzen dira Gaztetxearen bueltan, eta jaietan herriko 400 bat gazte batu dira. Aipatu dute, era berean, Gazte Asanbladan dabilzan gazteek, lokaletan batzen diren beste askoren aldean, badutela berezitasun bat: herriko beste hainbat elkartetako kide ere badirela eta haietan

ere ari direla lanean. Haien esanetan, lokaletan batzen direnetatik soilik %17 dira herriko beste elkarte batzuetan ere ari direnak. Horregatik uste dute herrigintzan diharduten beste mugimendu ezberdinen arteko gazte topagunea dela gaur Gazte Asanblada, eta Gaztetxearen kudeaketa ezin dela inolaz ere Kultur Etxeko sotoaren kudeaketarekin alderatu, “askoz sakonagoa” delakoan.

Hala ere, eta gauza guztien gainetik, Udalarekin elkarlanean aritzeko prestutasuna agertu du Gazte Asanbladak.

Ikerketako ondorio nagusiak, puntuz puntu

1. 19 urtetik 24 urtera bitartekoak dira Gaztetxea gehien erabiltzen dutenak.
2. Musikarekin lotutako jarduerak erakartzen dute jende gehien (%70), kontzertuek eta DJ-en saioek. Batzarren (%10,4) eta jaien (%3,1) aldean jende asko erakartzen dute musika-saioek.
3. Gazteek 6,10eko nota jarri diote Gaztetxeari hamarretik. Gaztetxean jarduera "gutxi" eta "gaizki" antolatzen direla diote gazteek eurek. Kokagunea bera ere ez dutela gustuko aitortu dute batzuek eta Gaztetxera joaten direnak "profil jakin batekoak" direla uste dute zenbaitzuk.
4. Espazio aldetik, baina, Gaztetxea egokia dela uste dute, handia delako eta gazteak elkartzeko toki balekotzat ikusten dutelako, "giro ona" egoten baita.
5. Musikarekin lotutako jarduerak antolatzea eskatzen dute, uste dutelako musikak laguntzen duela gazteak elkartzeko.
6. Galdekatutako hamar lagunetik seik uste dute hobetu daitekeela Gaztetxearen eta Udalaren arteko harremana, eta are, positiboa ikusten dute. Hala, galdekatutako hamar lagunetik bederatzik ondo ikusten dute gazteek pertsona bat izendatzea Udalarekin harremanetan egoteko.
7. Kultur Etxeko sotoaren kudeaketa-eredua Gaztetxerako egokia izan daitekeela uste dute galdekatuen %56,7k. Gainerakoek, baina, ez dute eredia ezagutzen edo ez dute on-tzat ematen.

8. Gaur egun, Elgoibarko gazteen erdia baino gehiago lokal-en batekoa da. Erabiltzaileen profilari erreparatzen badiogu, gizonetzkoak gehiago dira. Ikasleak dira gehienak, 16 eta 18 urte bitartekoak.
9. Lokaletan zer egiten duten galderari honela erantzun diote: musika entzun, telebista ikusi, litroak egin, jokoetara edo bideojokoetara jolastu, ikasi eta porroak egin.
10. Lokalak ez dira jarduera amankomunak gauzatzeko topaleku soilik. Batzuei familiarengandik edo etxetik "ihes" egiteko bidea ere ematen die lokalak. Bost gaztetik batek aitortu du lo ere lokalean egiten dutela batzuetan.
11. Lokalen %70ean bizilagunekiko tratua egokia dela irizten diote.
12. Bost lokaletik batean arazoak egon dira kideen artean ere, dela ordainketengatik edo arauak ez errespetatzeagatik. Hamar kideetik bat baino gutxiago kaleratu izan dute.
13. Lokalen alde onen artean, topaleku direla nabarmendu dute. Onartzen dute, baina, isolamendua eragiten dutela.
14. Aisialdi-denboraren kalitatea hobetzen laguntzen dute lokalek, gazteen ustez. Hiru lokaletik bat mistoa bada ere, gizonetzkoak gehiago dira.
15. Enplegua, ikasketak eta lagunekiko harremanak dira Elgoibarko gazteen kezka nagusiak.
16. Elgoibarko Gazte Egunari begira, gazteek kontzertuak antolatzeko proposatzen diote, batez ere Udalari.



JARRI EZAZU PUBLIZITATEA

www.elgoiBARREN.net web atarian

Zure enpresa edo negozioa klik batean!

www.elgoiBARREN.net



Adinekoen udal egoitzak kudeatzeko Aldundiak sortu duen Kabia erakundearen kontra egin du Elgoibarko Udalak

Kabia erakundeak San Lazaro egoitzaren “kudeaketa ona” zigortzen duela dio Udalak

Elgoibarko Udalak ez du gustuko Kabia proiektua, Gipuzkoako adinekoen hamasei udal egoitzen kudeaketa bere gain hartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak irailean aurkeztu zuen erakunde autonomoa. Eskualdatuko litzatekeen udal egoitza horietako bat da Elgoibarko San Lazaro egoitza, gaur gaurkoz Gipuzkoan zorrik ez duen adinekoen zentro bakarra, baina Alfredo Etxeberriak aurreratu du Udala ez dagoela ados eskualdaketa egiteko akordio horretan jasotzen diren puntu batzuekin, eta, EAJk esana duen bezala, argi laga du ez dutela sinatuko, “ez behintzat gaurko baldintzetan”. Bere esanetan, Gipuzkoan zuzen kudeatu den adinekoen egoitza bakarrarekiko “errespetu falta” agertzen du Kabiak.

Kabia proiektuak PSE-EEren babesja do du asteon, eta hala, eguaztenean, eta Bildu, PSE-EE eta Aralarren botoekin, atzera bota zituzten EAJk eta PPK aurkeztutako osoko zuzenketak, Batzar Nagusietan egin zuten osoko bilkuran. Hala, Foru Arauaren parlamentuko tramiteak aurrera jarraitzen du, eta hurrengo egingo duten osoko bilkura batean aurkeztuko dute Kabia, sozialistekin hitzartutakoak gehitu ondoren. Zehaztasun bat gehituko diote, PSE-EEren eskariz: 16 udal egoitza eta eguneko zentroen eskualdaketa 2018. urtea bukatu baino lehen egingo dela.

Atzera begirakoa

Simplea bezain katramilatsua da gaia. Kontua da 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legean eskumen aldaketa bat egitea aurreikusten zela. Haren arabera, adinekoen udal egoitzak eta eguneko zentroak Aldundiari eskualdatu behar zizkioten udalek, eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantziazioa beren gain hartu. Eskumen banaketa horri heltzeko, joan zen urteko urtarilean 2013-2016 Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana aurkeztu zuen Aldundiak, eta han egutegi bat ezartzen



San Lazaro egoitza.

zuten eskumenen eskualdaketa hori gauzatu ahal izateko. Plan hori aurkeztu zute-nean Aldundiak nabarmendu zuen ezinbestekoa zela Jaurlearitzak doiketa finantzio bat egitea, Gizarte Zerbitzuen Legea “bere osotasunean” betetzeko.

Nolanahi ere, 2013-2016rako planean zehaztutako egutegi haren arabera, Elgoibarko San Lazaro egoitza eta adinekoen Gipuzkoako beste lau egoitza [Villabonakoa, Zumaiakoa, Lasarte-Oriakoa eta Azkoitiko] dira Foru Aldundiak bere gain hartuko dituen lehenengoak. Bigarren fase batean beste sei egoitza hartuko ditu 2016ko abenduaren 31 baino lehen eta beste bi urte izango ditu gero gainerako

bostak bere gain hartzeko. Ander Rodriguez Gizarte Politikako diputatuak eguazteneko bilkuraren ostean esandakoaren arabera, Kabian sartzeko ordena udalen finantza egoeraren arabera zehaztuko dute, eta horretarako, hainbat faktore ekonomiko hartuko dituzte aintzat. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko iturriek komunikabide honi esan diotenaren arabera, Elgoibarko Udalak jarraituko balu gaur pentsatzen duena pentsatzen eta ez balu prozesu honekin jarraitu nahiko, bigarren faseko bat sartuko litzateke Kabian, bere orde.

Kabian sartzeko aurrenekoak

Foru Aldunditik jakinarazi dute

Kabiaren parte izango diren bost zentroak irabazi asmoa duten enpresei azpikontratutakoak direla, eta gainerakoa hamai-kak, udal-kudeaketa zuzenekoak. Nolanahi ere, lehenengo fase horretan eskualdatuko liratekeen artean, badira bi aldagai oso kontuan hartzekoak Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearen arabera: defizita eta langileen kontratazio mota. Bost zahar egoitza horietan, 250 erabiltzaile eta 150 langile inguru [funtzionarioak nahiz egoitza kudeatzen duten enpresek kontratatutakoak] daude gaur, eta Elgoibarkoak ez beste lauren artean urtean 1,5 milioi euroko zorra egiten dute, “txikia” hurrengo fasean sartuko liratekeenek dutenaren aldean [Elgoibarkoaren kasuan, defizitik ez dago, 60.000 euroko superabita izan baitzuen iaz], 48 dira erabiltzaileak eta bat ez beste langile guztiak egoitza kudeatzen duen enpresa pribatuak [Samsic] kontratatutakoak dira.

San Lazaro egoitzak ez du zorrik, eta iaz, 60.000 euroko superabita izan zuen

Eta hain justu ere, datu horiek eragiten dute Elgoibarko Udalaren haserrea. Udalak dio Foru Aldundiarentzat “pagotxa” dela San Lazaro, zorrik ez duelako eta langileen artean funtzionarioa bakarria izanda, erraz asko egingo lukeelako eskualdaketa, “kargarik hartu gabe”. Udalak dio Kabia proiektu honekin Foru Aldundiak hainbat zahar egoitzetan egindako kudeaketa txarra txalotzen duela. Alfredo Etxeberria alkateak nabarmendu du Aldundiak berak zehazten dituela egoitzetan eman beharreko zerbitzuak eta baita langile-ratioak ere, eta hori betez kudeatzen dutela San Lazaro egoitza. Hau da, baldintza horiek “zorrotz” beteta lortzen dutela gaur defizitik ez izatea: “Egoitzan zerbitzua eman behar zaien lagun kopuruaren eta eskaini beharreko zerbitzuen arabera zehazten dira lanak,

lan-orduak eta langile kopurua. Beste baztuetan gehiegia erekin ari badira, ez da gu-re kontua. Guk zorrotz betetzen dugu hitzarmena, zorrik sortu gabe, eta gustura ditugu zerbitzu horren erabiltzaileak eta haien senideak. Gauzak ondo egin daitezkeen frogara”. Horregatik uste du “gaizki egindako kudeaketa” saritu eta “ondo egindakoa” zigortzen dituela Aldundiak.

Elgoibarko Udalaren arabera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzurako izan behar-ko lukeen dirua erabiliko du Foru Aldundiak “zorra estaltzeko”, eta ondorioz, Udalak diru gutxiago jasoko du orain bere gain hartuko duen zerbitzu hori finantzatzeko: “Ez gara ezer asmatzen ari. 2013-2016 Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Planean bertan jasota ditu horiek Foru Aldundiak, bere planean. 2012an, Etxeko Laguntza Zerbitzurako ematen zuenaren %85a jasoko genuke 2014an eta %67a 2015ean. Beraz, bestera esanda: 2014an, %15 gutxiago jasoko genuke, 2015ean, %33 gutxiago, eta 2017an, %66 inguru gutxiago”.

Hitzarmeneko beste puntu batekin ere ez dago konforme Elgoibarko alkatea. Ez dago ados San Lazaroko ekipamendu osoa Aldundiari betiko ematearekin; alegia, Foru Aldundiak San Lazaron gaur ematen den zerbitzua emateari lagako bali- o, Udalak ondasuna berriro bueltan jaso- tzeko aukerarik ez izatearekin

Foru Aldundiaren mezua

Foru Aldunditik erantzun diote, baina, gizarte-zerbitzuen eredia aldatzeko politikaren barruan ulertu behar dela Kabia. Ander Rodriguez diputatuak berak esan du Gipuzkoako Foru Aldundiak “externalizazio eta azpikontratazioan oinarritutako zerbitzu publikoen kudeaketa eredia” diseinatu duela urte askoan, eta EHBilduren agintaldikoak, zerbitzu publikoen “kudeaketa publiko eta zuzena” defendatzen duela eta horregatik sinistuta daudela Administrazioak bere gain hartu behar dituela bere eskumeneko ardurak. Horri lotuta datu bat ere eman dute: Gipuzkoan, adinekoen egoitza eta eguneko zentroetako plazen %3 dira kudeaketa zuzenekoak eta %0 adingabeen egoitzen kasuan.

Zerbitzu publiko asko defizitarioak direla gogorarazi dute Foru Aldunditik, baina ezinbestekoak direnez, ezin direla baztertu defizitario izateagatik. “Udal egoitzen hasierako egoerak ezberdinak izan arren, Diputazioak euren arteko aldea gutxitu nahi du, eredu bateraturantz joateko”, dio. Gizarte zerbitzuen kudeaketak “publikoa eta zuzena” izan behar duela aldarrikatzen dute. “Eraldaketa” horren barruan kokatzen dute Kabia, eta aurreratu dute adinekoen zentroekin eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin egin asmo dutena adingabeen, zailtasunak dituztenen eta gizarteratze prozesuan daudenen zentroetara ere zabalduko dutela. “Pentsakera kontua da. Guk gizarte zerbitzuen publikatzea babesten dugu, eta EAJk eta PPK pribatizazioa”. Nolanahi ere, langile eta erabiltzaileei, lasaitasun mezua bidali die Gizarte Politikako diputatuak. “Ez ditugu soldatak ukituko, ezta zerbitzuen prezioa eta kalitatea ere”.

Zerbitzu publikoen kudeaketa “publiko eta zuzena” babesten dituela dio Aldundiak

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantziarioz zuzenean galdetuta, Foru Aldundiak esan du Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana aurkeztu zuenean esan ziola Jauriaritzari finantza-doiketa egin behar duela 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legea osotasunean garatu ahal izateko. “Jauriaritzak bere ardura betetzen ez duen artean, udal batzutatik adinekoen udal egoitzak geure egiteko eskatzen diote Diputazioari, hala dagokigulako, eta beste zenbait udaletatik Etxez Etxeko Zerbitzua finantzatzeari ez lagatzeko eskatzen digute, gure eskumena izan ez arren. Egoera horretan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua %15ean eurek finantzatzeko eskatu genien udalei, eta horri eutsiko diogu 2014an, Jauriaritzak doiketa hori egin eta ordainketez arduratuko delakoan”.

‘BARREN’ komunikabidearentzat diru-laguntza handiagoa eman du Jaurlaritzak, baina ez du sektore osoa babestu

Diru zakua handitu egin behar dela aldarrikatu dute euskalgintzako eragileek

Euskarazko hedabideentzako diru-laguntzen ebazpenak jakinarazi ditu Eusko Jaurlaritzak, eta horren arabera, iaz baino 18.131 euro gehiago jasoko ditu BARRENEK, %60 gehiago. Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideei diru-laguntzak emateko irizpideak aldatu ditu. Hedabidearen “zabalkundea eta produktuaren kalitatea” izan dira giltzarriak orain arte; aurten, baina, “irismena” gehitu zaie horiei. Irismena neurtu dute hedabide bakoitza iritsi daitekeen herritarren artean zenbatengana iristen den kontuan hartuta, eta puntuazioaren %70 horren arabera izan da. Hori dela-eta, tokiko hedabide gehienek diru laguntza handiagoa jaso dute: BARRENEK 21.795 euro jaso zituen Eusko Jaurlaritzatik 2013an, eta 36.997 euro jasoko ditu aurten. ElgoiBARREN.net atariak ere laguntza handiagoa jasoko du: laz, 7.583 euro jaso zituen, eta aurten, 10.512 euro.

Ez dute sektore osoa babestu

Jaurlaritzak, baina, ez du euskarazko hedabideen sektore osoa babestu. *Berriak* esate baterako, kolpe handia hartu du Jaurlaritzaren ebazpenarekin, eta 210.000 euro gutxiago (%14 gutxiago) jasoko ditu. Sinadura bilketa kanpaina hasi dute, babes bila. Nahiz eta batzuk gehiago eta besteek gutxiago jasoko duten, diru kopuru orokorra bere horretan mantendu dute, eta tokiko hedabideek nahiz nazionalek bat egiten dute kopuru hori handitu behar dela diotenean. Urko Aristi TOKIKOMeko presidentek hala dio *Berrian*: “Zakua handitzen ez den bitartean, batzuek gehiago jaso zezeko besteek gutxiago jasoko dute. Eta hori pena da”.



Artisau feriak eta azken zapatuko feriak bat egingo dute bihar

Hileko azken zapatuko feriaz gain, Elgoibarko artisau eta eskulan azoka antolatu du Kultura Sailak biharko. Elgoibarko artisauak hartuko dute parte soilik. Guztira hamazazpi artisauk hartuko dute parte azokan, eta besteak beste, bitxiak, xaboiak, aurre-historiako tresnen erreplikak, ehunak edota egurrezko lanak erakutsiko dituzte. 10:30etik 14:00ak bitartean jarriko dituzte ikusgai euren artelanak, Lekuederren.

Hilero bezala, azken zapatuko feria antolatu dute biharko Udalak eta Debemenek. 9:00etatik aurrera Elgoibarko baserrietako produktuek jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta 11:00etatik aurrera bertako baserrietako produktuekin prestatutako pintxoak salduko dituzte Lagun Taldea txirindulari elkarteko kideek. 12:00etan Kale Kantariak irtengo dira kantuan, eta ordu berean hasiko da etxe txikienezako talo tailerra. Eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan.

Uxue Alberdiren testuekin eginiko ipuin sorta berria kaleratu dute Pirritx eta Porrotx pailazoek

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ipuin sorta berria kaleratu dute Uxue Alberdiren testuekin. Plaza-ipuinak izeneko bilduma kaleratu dute irakurle hasiberrientzat, eta pailazoek eginiko bi ikuskizunetan oinarritutako bi ipuin jaso dituzte bilduma horretan: *Ongi etorri Pupu eta Lore* eta *Bizipoza*. Lehenengo ipuinak Pupu eta Lore haurtxoen jaiotza kontatzen du, eta istorioan Atxolorraren festa sartu du Uxuek, hau da, erditzearen bueltan emakumeek egiten zuten festa bat. Pirritxen lagun guztiek hartuko dute parte festa horretan. *Bizipoza* liburuan bestalde, emanaldiari “buelta” bat eman dio Alberdik. Porrotxek bizipoza galduko du, zahartzaroari beldur diolako. Adinak sortzen dituen galdera eta kezka izango ditu oinarri liburuak.

Bi liburu horiez gain, beste lau liburu kaleratu dituzte kartoizko formatoan, pertsonaia bakoitzari loturiko sentimenduetan oinarrituta: Poza, beldurra, amorrua eta tristura. Elkar eta Katxiporretak argitaratu dituzte liburuak.

Stefan Crnko wing-tsun irakasle austriarrak saio berezia eskaini du asteburuan Elgoibarren

Defentsarako teknikak praktikatu dituzte hainbat elgoibartarrek



Stefan Crnko gorritz, wing-tsun ikastaroan parte hartu zutenekin.

Ostiralean iritsi zen Stefan Crnko wing-tsun irakasle austriarra Elgoibarrera. Europako hainbat herrialdetan jarduten du wing-tsun teknikak irakasten, eta Espainian ere hainbat kiroldegi bisitatu ditu. Iñaki Lucas Elgoibarko wing-tsun taldeko kidearen bitartez iritsi zen estreinako Elgoibarrera orain dela lau urte, eta ordutik urtean pare bat aldiz etortzen da wing-tsun eskolak ematera. Gaztetan hasi zen arte martzialak ikasten. Kick boxing eta estiloko borroka kirolak egiten hasi zen lehenengo, eta orain dela 23 urte hasi zen wing-tsun praktikatzen. “Ez daukate zerikusirik”, esan du. Lehenengoak praktikatzeko, fisikoki indartsu egotea beharrezkoa da, baina wing-tsun egiteko ez da ezinbesteko baldintza. Urte askoan ibili da teknikak ikasten, baina uste du arte martzial bat ikasten ez dela inoiz amaitzen: “Beti etorriko da zu baino gehiago dakien bat eta esango dizu teknikak nola hobetu”.

Osasunari “izugarri” laguntzen dio wing-tsunak, eta Crnkok argi utzi du edozeinek praktikatzeko moduko kirola dela. “Txinako emakume txiki batek sortu zuen arte martziala, eta ez da indar askorik behar wing-tsuna egiteko”. Emakume, gizonezko, gazte zein adinekoek praktikatu dezakete wing-tsuna, eta guztientzako dauzka onurak: Balio du erlaxatzeko, gorputza malguago egiteko eta baita animoa indartzeko ere. Horrez gain, wing-tsunari esker, norbere defentsarako teknikak landu

daitezkeela nabarmendu ditu irakasle austriarrak. Wing-tsunak erasoetatik babesten laguntzen du, erasotzaileari “min handiegirik” egin gabe.

Iñaki Lucas wing-tsun taldeko kidea izateaz gain, udaltzaina ere bada Elgoibarren, eta bere lankideak jarri ditu Stefan Crnkorekin harremanetan. Bigarren urtez defentsarako teknikak praktikatu dituzte. “Udaltzain batek bere lanpostua galdu dezake herritar bati min ematen badio. Gaur egun oso gutxik errespetatzen dute autoritatea, eta gatazka une horietan lasaitasuna mantentzea ez da erraza izaten”. Udaltzaintzako bezala, edozein herritarrentzat da interesgarria defentsa teknikak ikastea: “Gutxieneko teknika batzuk ikasteak asko laguntzen du. Eraso baten aurrean blokeatuta geratzea da ohikoena, eta wing-tsun teknikari esker, norbere burua babesten ikasi daiteke”.

Iñaki Lucasek esandakoaren arabera, asteburua “aberasgarria” izan da, eta partehartzaileak gustura geratu dira. Elgoibarren oraindik ere arrakasta handiagoa dute karate edo judoak, bere ustez, wing-tsuna ezezagunagoa delako. Joan zen asteburukoa bezalako jarduerekin wing-tsuna ezagutarazi nahi dute. Herritarrei wing-tsuna probatzera joateko dei egiten diete klubetik. Nahi duenak Olaizaga kiroldegian eskuratu dezake informazioa.

Kepa Arrizabalaga eta Nerea Irustak irabazi dute pala txapelketa mistoa

22 bikotek parte hartu dute guztira txapelketan



Kepa Arrizabalagak eta Nerea Irustak irabazi dute Elgoibarren estrainekoz jokatu den pala txapelketa mistoa, finalean Marta San Martin eta Igor Castañaresi 22 eta 15eko emaitzarekin irabazita. Barixakuan jokatu zen finala, Kalegoen plazan, eta ikusmin handia piztu zuen. Finalaren aurretik txapelketan parte hartu duten guztiek [22 bikote guztira] *barrus* partidak jokatu zituzten, eta ondoren, aurrekua dantzatu zieten. Sari banaketan, Patxi Jauregi Euskadiko Pilota Federazioko lehendariak parte hartu zuen, Bittori Zabala, Joseba Elustondo eta Ane Beitia udal ordezkariekin batera.

373 lagunek parte hartu zuten domekan Karakate inguruan egin zen BTT martxan



Giro aparta izan zen Debabarreneko mendi-bizikleta martxaren seigarren edizioan. Goizean goizetik txirrindularien joan-etorria nabarmena izan zen Elgoibarren. 373 lagunek parte hartu zuten, sei ez beste guztiak gizonezkoak, gehientsuenak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, Debegesak jakinarazi duenez. Gure mugetatik kanpotik ere etorri zen jendea Elgoibarrera, Burgostik, Asturiastik, Huescatik, Leondik, Errioxatik, Tarragonatik, Zamoratik eta Frantziatik ere bai. Proba bukaeran hainbat opari zozkatu zituzten.

Bazkide txartelak banatuko ditu CD Elgoibarrek, bihar

CD Elgoibarrek jakinarazi du bihar, larunbata, Kalegoen plazara irtengo direla bazkide-txartelak banatzera. 12:00etatik 13:30era egongo dira plazan. Era berean, ostiral honetatik aurrera jokalarien gurasoen txartelak eskuragarri egongo dira Mintxetan klubak duen bulegoan. Horiei datorren hilabete hasieran pasatuko diete kuota.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Kirol Patronatuak autobusa jarriko du Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko duten elgoibartarrentzat. Interesatuek azaroaren 7rako eman beharko dute izena Olaizaga kiroldegian (12:00ak arte). Plazak mugatuak dira. Patronatuko bazkideek 13 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 16 euro. Autobusa King-Kong-eko geltokitik irtengo da, 8:30ean.

Gorbeia Suzien irabazita amaitutzat eman du denboraldia Maite Maiorak

Gizonezkoetan, Ionut Zinca izan da azkarrena

Maite Maiora nagusitu zen domekan Gorbeia Suzien mendi lasterketan. Hirugarren urtez antolatu dute Gorbea Suzien, eta aurtengoa Skyrunner Txapelketarako proba puntuagarria izan da. 32 kilometro eta 2.300 metroko ibilbidea osatu zuten korrikalariak, Zeanurin (Bizkaia) hasita. Emakumezkoetan, Maite Maiora nagusitu zen, 3:14:42ko denborarekin. Munduko Txapelketako txapelduordea eta Espainiako Kopako txapeldua izaki, bera zen faborito nagusia, eta gaur gaurkoz besteak baino gehiago dela erakutsi zuen, ez baitzuen aurkaririk izan. Hamabi minutuko alde atera zion Maiorak bigarren sailkatuari, Azara Garcia de los Samonesi. Hirugarren Antonela Confortolak egin zuen. Gizonezkoetan, Ionut Zinca izan zen azkarrena (2:46:16), eta Tofoi Castanyer eta Aritz Egea sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuan.



Herri Eskolako eta Ikastolako ehun bat haur eta guraso Akondian izan dira Morkaikorekin



Herri Eskolak eta Ikastolak hainbat mendi irteera antolatu dituzte Morkaikorekin elkarlanean, eta joan zen domekan Akondian izan ziren. Autoz joan ziren Arrateraino, eta oinez egin zuten gero Akondiara arteko bidea. Ehun bat ume eta haien gurasoek hartu zuten parte irteeran. Antolatzailerak esandakoaren arabera, "goiz pasa polita" egin zuten. Hurrengo irteera azaroaren 16an egingo dute, Urbiara.

EMAITZAK

FUTBOLA

Real Union B 3 – Haundi 0 (Ohorezko erreg.)
Alle Punta 1 – C.D. Elgoibar 1 (Erreg.)
C.D. Elgoibar 4 – Ordizia 2 (Jubenilak)
C.D. Elgoibar 1 – Urola 2 (Kadete A)
C.D. Elgoibar 8 – Eibartarrak 0 (Kadete B)
C.D. Elgoibar 19 – Eibartarrak 0 (Leh. Infantilak)
Aretxabaleta 1 – C.D. Elgoibar 3 (Infantil txiki)
C.D. Elgoibar 8 – Hamaika Bat 3 (Alebin errendim.)
C.D. Elgoibar 9 – Anaitasuna 0 (Alebin parte-hartzea)

ESKU PILOTA

Lagunak 22 – Bergara 17 (2. mailako jub.)
Lagunak 7 – Urnieta 22 (2. mailako nag.)

Pala

Danok Bat 20 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)
Azkoitia 25 – Lagunak 14 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 5 – Xota B 1 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Aloña Mendi 15 – San Roke kafet. 25 (Inf. nsk.)
Gabaz Elgoibar 25 – EHaritza 22 (Sen.mut.)
Pulpo 27 – Alcorta Forging Group 26 (Sen. mut.)
Elgoibar 27 – Tolosa 24 (Jub. mut.)
Beti Onak 30 – Lauko Elgoibar 19 (Sen. nsk.)
Aloña Mendi 24 – Tecnifuelle Elg. 17 (Jub. nsk.)
Aloña Mendi 10 – Tecnifuelle Elg. 19 (Kad. nsk.)
Bera Bera 20 – Pneumax Elg. 15 (Kad. nsk.)
Elgoibar 19 – Bergara 23 (Kad.mut.)
Bankoa 40 – Amenabar 13 (Kad.mut.)
Murgil Elgoibar 5 – Aloña Mendi 26 (Inf.mut.)
Federopticos Ikus 39 – Elgoibar 5 (Inf. nsk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

18:30 Santurtzi – Concepto Egile

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25

11:30 Elgoibar – Amaiak Bat (Infantil txiki)

12:30 Elgoibar – Zarautz (Alebinak)

17:00 Haundi – Ordizia K.E. (Haundi)

Domekia, 26

9:30 Entrenamendua (Alebin eta benjaminak)

12:30 Elgoibar-Zarautz (Alebinak)

16:30 Elgoibar-Mutriku (Erregionalak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

11:30 Txarriduna Elg. – Aloña B (Inf. mutilak)

12:45 Pneumax Elg. – Usurbil (Kad. neskak)

17:45 Lauko – Garlan Legumbres (Sen. neskak)

19:30 Alcorta – Tolosa (Sen. mutilak)

Domekia, 26

10:00 Cometel – Eibar B (Inf. neskak)

11:15 San Roke – Talaipe (Inf. neskak)

PILOTA

Barixakua, 24

21:00 Lagunak – Antigua (2. mailako nag.)

ETXEBIZITZAK

- Pisia salgai Gabriel Krutzelaegin. Bi logela, egongela, sukalde, komuna. 130.000 euro. ☎ **663 928 169**
- Etxe polita salgai erdigunean. Bi logela, bero-gailua. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **688 691 327**
- Etxea alokairuan: bi logela, egongela handia, terraza, ganbara. Altzari eta igogailuarekin. ☎ **646 581 666**

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **602 846 244**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako eta adinekoak zaintzeko. ☎ **636 882 838**
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **628 740 765**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientzia. ☎ **632 395 829**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. Urme autistekin esperientzia. ☎ **691 073 462**
- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Ordu-tegi malgua. Esperientziaduna. ☎ **650 091 685**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **676 602 481**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **602 691 378**

- Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako. ☎ **632 970 524**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **602 820 429**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 705 406**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, orduka. Esperientzia daukat. Dendetan ere lan egingo nuke, jendaurrean lan egiteko doaiak ditut. ☎ **622 501 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna, gauzez... Ordu-tegi malgutasun handia. Esperientzia daukat. ☎ **626 914 904**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan ere bai. ☎ **680 121 252**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. ☎ **606 354 982**
- Neska eskaintzen da adinekoak, umeak edo ezinduak zaintzeko. Orduka. Geriatria ikasketak ditut. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka. Esperientziaduna. Gidabaimenarekin. ☎ **631 343 232**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Interna ere bai. ☎ **628 740 765**

- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Agiriak legez ditut. ☎ **602 186 462**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Gaez ere bai. ☎ **631 417 995**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna moduan. ☎ **649 626 975**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Goizez. ☎ **628 529 252**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **690 064 225**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garajea itxia alokairuan Jausoro plazan. Kalegoen plazatik gertu. ☎ **669 022 573**
- Garajea salgai Maalan, Eroski azpian. Itxia, 16m2. Prezio onean. 22.000 euro. ☎ **675 007 661**

PARTIKULARRAK

- Oinarrizko matematika eta finantzieroen eskola partikularrak hartuko nituzke. ☎ **618 022 434**
- Cambridge tituludun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Irakasle natiboa. Urme zein helduentzat. Cambridge azterketaren prestaketa. ☎ **943 740 225 (Francesca)**

OSPAKIZUNAK

- 1944an jaiotako kinto bazkaria azaroaren 22an, Sigman. Parrokia aurrean aterako dute argazkia 13:30ean. 50 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 25 00711299009. Azken eguna, azaroak 18.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Garaje bat erosi asmo dut. Hipoteka mailegu bat eskatu dut eta jakin nahiko nuke ia eskritura ikusteko aukerarik dudan sinatu aurretik.

Erosleak eskubidea dauka notaritzara joan eta eskritura-proiektua ikusteko, sinatu aurreko hiru egun baliodunetan (astegunak).


Eskritura proiektuan banketxearekin adostutako finantza-baldintza guztiak agertu beharko dira eta baita finantza-baldintzak ez diren beste zenbait ere. Neurritz kanpoko klausularik balego, notarioak kentzeko eskatu beharko lioke banketxeari.

Notario aurreko eskritura-ematea ez da eskritura sinatzera mugatzen. Erosleak eskritura hori irakurtzeko behar duen beste denbora eska diezaiolke notarioari. Ondoren, notarioak ahoz goran irakurri beharko du eskritura hori eta hipoteka-maileguaren edukia azaldu beharko du. Sinatu aurretik, notarioak katastroko eta Jabetza Erregistroko liburuak begiratu beharko ditu, bermatzeko ez dagoela erosi nahi den horren gaineko karga edo mugarik.

AHOLKUA: Banketxeek idatzitako kontratuak luzeak eta zehaztasun handikoak izan ohi dira. Komeni da tentuz irakurtzea eta sinatu aurretik notarioari dauzkagun kezka guztien inguruan galdetzea, gero ezustekorik izan ez dezagun.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Ainhitze**, azurre 14. urtebetetzean, eta muxu handi handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Naia**, urriaren 22an 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



• Zorionak, **Janire**, astelehenean bederatzikandela itzaliko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Eleneren partez.



• Zorionak, **Elia**! Bihar 3 urte! Muxu potolo bat familiakoen partez. Ondo pasa, maitxi!



• Zorionak **Jone** gure neska handiari, astelehenean 4 urte egin zituelako. Ane, Maddi, Mikel eta Amaiak. Prestatu bizkotxo!



• Zorionak etxeko mutil handiari! Dagoeneko 5 urte! Muxu handi bat etxeko denon partez.



urte egin dituzulako. Familiakoek asko maitate zaituzte.

• Zorionak, **Garazi**, 18




• Zorionak etxeko printzeari bere 3. urtebetetzean. Muxu bat gurasoen eta aiton-amonen, eta bereziki, Duraren partez.



• Zorionak, **Ayelen**! 7 urte bete dituzi! AitTiTa-amama eta osabaren partez.



• Hiru, bi, bat... Prest altxor bila ibiltzeko? Zorionak, **printzesak!**



• Gazte zinetela ezagutu zineten eta jada 50 urte pasatu dituzue elkarrekin. Zorionak, **bikotel!** Urte askotarako! Marienxuanpexen partez.

1951n JAIOTAKOEN OSPAKIZUNERAKO DEIALDIA



1951n jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute azaroaren 15ean, Sigman. 13:00etan batuko dira Kalegoen plazako arkupeetan, eta 14:45ean izango da bazkaria. Interesatuak 35 euro sartu behar dituzte hilaren 12rako, Laborak Kutxako kontu honetan: 3035 0007 28 0071129688.

Urriaren 31n,
ekintza sorpresa
Ludotekan!
17:30etik aurrera



Barixakuetako ekintza
18:00etan!
Animatu zaitetzte!

24 barixakua

Aisialdia

17:30 'Kiribilka'
Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

Erakusketa

18:30 Margo erakusketa
Azaroaren 2ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

Kale Kantariak

18:30 Entsegua
Biharko ferian kantatzeko entsegua, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

25 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Kalebarren plazan.

Artisautza

10:30 Artisau feria
Elgoibarko artisauen feria, Lekuederren.

26 domeka

Musika

12:30 Kontzertua
Eibarko 'Cielito lindo' musika bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

27 astelehena

Arte tailerra

17:00 'XXI. mendea'
Haizeak antolatuta, Carmen Agirrek eskainiko du saioa, Kultur Etxean.

Dolitika

19:00 'Elgoibar berrian hari gara'
EHBilduren bilkura irekia, Kultur Etxeko sotoan.

28 martitzena

Literatura tailerra

18:00 'Oscar Wilde'
Haizeak antolatuta, Consuelo Carrerek gidatuko du saioa, Udal Liburutegian.

Dolitika

19:00 Sorturen herri batzarra
Ikasturteko plangintza eta erronka nagusiak aztertuko dituzte. Kultur Etxeko sotoan.

30 eguena

Kultura

11:00 eta 17:00
Liburudenden festa
Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarra Pitxintxun izango da, eta besteak beste, marrazketa tailerra egingo dute umeekin.

Tailerra

17:00 Gaileta tailerra
Ukraina-Euskaldi Elkarteak antolatuta Mendaroko Lagun Betikoak elkartearen.

Irakurketa

19:00 'Epeletan'
Euskaraz irakurtzeko helduentzako saioa. Liburutegian.

1 zapatua

Musika

12:30 Duo Endecha
Emudafek eta Musika Bandak antolatuta, Herriko Antzokian.

7 azaroak

Argazkia ateratzea

20:00 Konponbidearen sarea
Euskal preso eta iheslarien etxeratzea ahalbidetuko duen norbanakoen sare herritarra sortu nahi dute Mendaron, aniztasunean, elkartasunean eta errespetuan oinarrituta. Argazki herrikoia ateratzeko deia egin dute. Herriko Enparantzan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
24 Barrenetxea 25 Ibañez 26 Ibañez 27 Garitaonandia 28 Barrenetxea 29 Fernandez 30 Yudego 31 Zabaleta 1 Barrenetxea 2 Barrenetxea 3 Ibañez 4 Garitaonandia 5 Etxeberria 6 Fernandez 7 Yudego	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Jersey Boys»

24, barixakua: 22:15
25, zapatua: 19:00 / 22:15
26, domeka: 19:00
27, astelehena: 21:30

«Hercules»

31, barixakua: 22:15
1, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
2, domeka: 19:00
3, astelehena: 21:30

«Cómo entrenar a tu dragón»

26, domeka: 16:30

«El desconocido del lago»

Ongarri zinekluba
6 eguena, 21:30


«Oh boy» Ongarri zinekluba

30, eguena: 21:30

OHARRA

Datorren astean ez dugu BARREN kalera-tuko, eta gure bulegoa goizez egongo da zabalik, 14:00ak arte. Hurrengo alea azaroaren 7an jasoko duzue.





Eskertzak eta urteurrenak

ESKERTZA



CONSUELO ALCIBAR ODRIOZOLA

2014ko urriaren 21ean hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II. URTEURRENA



JAVIER GALDOS ASTIAZARAN

2012ko urriaren 25ean hil zen, 78 urte zituela.
"Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu bihotzean"



I. URTEURRENAK



CARMEN LEKUE ORMAETXE eta PETRONIO DOMINGUEZ COLLIGA

I. urteurreneko meza zapatuan, urriaren 25ean, izango da arratsaldeko 19:00etan
Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



2013ko abuztuaren 29an hil zen

2013ko urriaren 27an hil zen

I. URTEURRENA



MANUEL ARANBARRI ELDUAYEN

*Ezin ikusi,
baina bai senti,
joan zinen arren,
gure bihotzetan
beti zaude,
bizirik.*

2013ko urriaren 22an hil zen, 79 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, urriaren 25ean, izango da
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00** etara

Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun biqunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleidak Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Affonso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleidak Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatu Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatu. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatu. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Okulsiotan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuizuz!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSAJUD, PADL...

Galdetuizuz!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com